Ambito de la
Administración Local

# Leitzako Udala
# 1994



CÁMARA DE
COMPTOS
DE NAVARRA
NAFARROAKO
KONTUEN
GANBARA

## AURKIBIDEA


I. Helburua

II. Norainokoa eta mugak

III. Iritzia

IV. Egoera finantzieroa: 1994ko aurrekontuaren burutzea

V. Ondorioak eta gomendioak

V.1. Aurrekontuaren betetzeari buruzko ohar nagusiak
V.2. Egoera ekonomikoa 94/12/31n
V. 3. Kontratazioa
V. 4. Toki entitateekiko hitzarmenak
V. 5. Hainbat interesgune berezi

Eraskinak

1. Organigrama
2. Pasibo finantzieroen zerrenda
3. Txostenari aurkeztutako alegazioak

3.1. Leitzako Alkate ohiak txostenari aurkeztutako alegazioak

3.2. Toki Administrazio Departamentuak aurkeztutako alegazioak

3.3. Leitzako Udaleko alkateak txostenari aurkeztutako alegazioak

4. Leitzako alkate ohiak eta Toki Administrazio Departamentuak aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganbarak emaniko erantzuna

# I. Helburua

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/90 Foru Legearen eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/84 Foru Legearen arabera, Leitzako Udalaren kudeaketa ekonomiko eta finantzieroa, eta baita 1994ko ekitaldiko Gastuen eta Dirusarreren Aurrekontuen betetzea ere fiskalizatzeari ekin zaio.

Aztertutako udal erakundeari ezar dakiokeen legeriaren barruan honako hauek biltzen dira, funtsean: uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa; apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Erregimenaren Oinarriak arautzekoa; 1981ko ekainaren 8ko Araua, toki Ogasunak eraberritzeari buruzkoa (TOA), eta hori garatzeko Erregelamendua (TOE), 1981ko abenduaren 17koa; orobat, Nafarroako toki erakundei eskuarki ezar dakiekeen gainerako arauteria.

Txostenaren xedea da gure iritzia ematea hurrengo gaiei buruz:

a) 1994ko aurrekontuaren garapena eta burutzea.

b) 1994ko abenduaren 31n zegoen ondare egoera azaleraztea, eskuarki onartzen diren kontabilitate hatsapenen arabera eta baita egoera finantzieroa ere.

d) Udalaren ekintza ekonomiko eta finantzieroa legezkotasuna hatsapenaren arabera garatzen den ala ez.

Leitza Nafarroako mendialdeko iparmendebaldean dago. 1994ko abenduaren 31ko errolda ofizialaren arabera 3.140 biztanle eskubidedun ditu.

## II. Norainokoa eta mugak

Kontuen Ganbarak, bere iharduketa programarekin bat, Leitzako Udalaren fiskalizazioa burutu du, 1994ko ekitaldiari dagokiona.

Udaleko kontabilitatea Aurrekontuaren betetzearen jarraipena egitera mugatzen da (aurrekontu kontabilitatea). Ez da ekitaldi bakoitzaren bukaeran Udalaren ondare egoera islatzen duen kontabilitate orokorrik ageri.

Dirusarrera eta gastuei buruzko kapitulu ekonomiko ezberdinak berrikusteari lotu zaio burutu den txostenean. Antolaketa, kontabilitate eta barne kontroleko alderdiak jorratu dira, gorabeheren arabera eta Udalari bidali zitzaion galdesortak azaleratutako arazoekin bat beharrezkotzat jotako frogak egin direlarik.

Udalaren osoko bilkurak eginiko eskaerari erantzunez, idazkariak 1994ko azaroaren 17ko txostenak aipatzen dituen obra espedienteak ere aztertu ditugu. Azterketaren ondorioak lanen kontratazioari buruzko atalean daude (V.3).

Txostenak Leitzako Udalak beste udalekin kolaborazio hitzarmen bidez kontzertaturik dituen zerbitzuak ere aztertu ditu. Zerbitzuon gastu, dirusarrerak eta gastuen banaketa aurrekontu lerroen bitartez egiten dira.

Gure lanak izan dituen mugak funtsean inbentarioa ukitzen duen ezarritako kontabilitate-sistema eskasak eragin ditu.

Udalaren kudeaketa hobetzeko ohar eta gomendioak biltzen dira txostenean. Era berean, eraskin gisa maileguen kuadroa eta Udalaren organigrama paratu dira.

Zelaiko lana 1995ko lehen sei hilabeteetan egin zen.

Leitzako Udaleko langile guztien laguntza eskertu nahi dugu, gure lana burutzea erraztu egin baitute.

## III. Iritzia

Buruturiko fiskalizazioaren esparruan Leitzako Udalaren gastu eta dirusarrera Aurrekontuaren Betetzearen Egoera orria aztertu dugu, 1994ko ekitaldiari zegokiona.

Gorabeheren arabera beharrezkotzat jotako ikuskapen-arau eta prozedurak erabili ditugu gure azterketan.

Gure azterketaren ondorioz, horra hurrengo iritzia:

a) Aurrekontuaren garapena eta betetzeari buruzkoan.

1994ko Aurrekontuaren Burutzearen Egoera orriak Udalak, fiskalizaturiko ekitaldian, egindako eragiketen multzoa behar bezala azaltzen badu ere badira gaizki periodifikatutako gastuak baina honek ez du aurrekontuan eragin larririk izan.

b) Ondare egoeraren azalpena

Kontabilitate-sistema eskasak, eta gaurkoturiko inbentariorik ez izateak, ez digute biderik ematen Udalak 1994ko abenduaren 31n duen ondare egoeraz iritzirik emateko.

d) Legezkotasuna

Ageriko eta behin eta berriro egindako arau hausteak antzeman ditugu kontratazio arloan; arau-hauste hauek larriak dira kontratazio prozesuan eta baliteke, V.3 atalean aipatzen den bezala, Azpiestruktura planen barruan sarturiko obra lanengatik Nafarroako Gobernutik jasotako dirulaguntzetan ere arau-hauste larriak izatea.

Langileriaren kontratazioan ere arau-hausteak antzeman ditugu. Hori dela medio, epaileen aginduek osoko bilkuran hartutako erabaki batzuk bertan behera utzi dituzte.

Laburbilduz eta ondorio nagusi gisa, honako hau esan dezakegu:

- Udalak landu duen aurrekontu-informazioak ekitaldiko gastu eta dirusarrerak behar bezala jaso ditu.
- Udalaren zorra handia da eta honek diruzaintzako gorabeherak eragiten ditu. Egoera gainditzeko berehalako neurriak hartu behar dira.
- Azkenik, herri lanen eta langileriaren kontratazioan antzeman ditugun arau-hauste larriek Udalak arauteria betetzerakoan ez duela behar bezala jokatzen islatzen dute.

# IV. Finantza egoera orriak: 1994ko aurrekontuaren betetzea

Horra 1994ko gastu eta dirusarrera-aurrekontuaren betetzearen isla:

### GASTUEN AUREKONTUAREN KITAPENA
### 1994ko ekitaldia (pezetatan)

| Kapitulua | Kontua | Hasierako aurrekontua | Aldaketak | Behin betiko aurrekontua | Onartutako betebeharrak | Likidatutako ordainketak | Ordaintzeke | Betetzea-ren % | Onartutako guztiaren % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Itxitako ekitaldien emaitzak | 0 | 57.185.307 | --- | 57.185.307 | 57.185.307 | 57.185.307 | 0 | 100 | 9,4 |
| **A) Ohiko eragiketak** | | | | | | | | | |
| Langileriaren gastuak | 1 | 95.501.235 | --- | 95.501.235 | 107.842.489 | 107.842.489 | 0 | 113 | 17,6 |
| Ohiko ondasun eta zerbitzuen erosketa | 2 | 111.743.748 | --- | 111.743.748 | 88.915.144 | 81.853.033 | 7.062.111 | 79,6 | 14,5 |
| Korrituak | 3 | 16.785.292 | --- | 16.785.292 | 18.789.413 | 18.789.413 | 0 | 112 | 3,1 |
| Ohiko transferentziak | 4 | 21.611.893 | --- | 21.611.893 | 12.592.047 | 12.365.224 | 226.823 | 58,3 | 2,1 |
| **B) Kapital eragiketak** | | | | | | | | | |
| Inbertsio errealak | 6 | 540.566.409 | --- | 540.566.409 | 306.914.797 | 258.125.599 | 48.789.198 | 56,8 | 50,2 |
| Pasibo finantzieroen aldaketak | 9 | 18.314.670 | --- | 18.314.670 | 18.985.483 | 18.985.483 | 0 | 103,7 | 3,1 |
| Guztira | | 861.708.554 | --- | 861.708.554 | 611.224.680 | 555.146.548 | 56.078.132 | 70,9 | 100 |

### DIRUSARREREN AURREKONTUAREN KITAPENA
### 1994ko ekitaldia (pezetatan)

| Kapitulua | Kontua | Hasierako aurrekontua | Aldaketak | Behin betiko aurrekontua | Likidatutako eskubideak | Likidatutako bilketa | Kobratzeke | Betetzea-ren % | Likidatutako guztiaren % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Itxitako ekitaldien emaitzak | 0 | 30.634.625 | --- | 30.634.625 | 30.634.625 | 22.416.634 | 8.217.991 | 100 | 5,2 |
| **A) Ohiko eragiketak** | | | | | | | | | |
| Zuzeneko zergak | 1 | 26.375.000 | --- | 26.375.000 | 29.757.283 | 27.752.314 | 2.004.969 | 113 | 5 |
| Zeharkako zergak | 2 | 12.250.000 | --- | 12.250.000 | 13.160.353 | 11.984.534 | 1.175.819 | 107 | 2,2 |
| Tasak eta beste dirusar. | 3 | 138.056.756 | --- | 138.056.756 | 43.103.804 | 40.523.951 | 2.579.853 | 31 | 7,3 |
| Ohiko transf.erentziak | 4 | 154.734.281 | --- | 154.734.281 | 134.689.148 | 125.368.324 | 9.320.824 | 87 | 22,9 |
| Ondare dirusarrerak | 5 | 4.040.000 | --- | 4.040.000 | 864.538 | 842.416 | 22.122 | 21 | 0,2 |
| **B) Kapital eragiketak** | | | | | | | | | |
| Kapital transferentziak | 7 | 335.774.234 | --- | 335.774.234 | 202.967.414 | 202.967.414 | 0 | 60 | 34,5 |
| Pasivo finantzieroen aldaketak | 9 | 101.186.703(1) | --- | 101.186.703 | 133.777.054 | 133.777.054 | 0 | 132 | 22,7 |
| Guztira | | 803.051.599 | --- | 803.051.599 | 588.954.219 | 565.632.641 | 23.321.578 | 73 | 100 |

Iturria: Leitzako Udala

## V. Ondorioak eta gomendioak

Ondoren ohar, ondorio eta gomendioak azaltzen ditugu, Udalaren barne antolaketa eta barne kontrola sistema hobetzeko egoki jotzen direnak, hartara kudeaketa hobetzea lortu ahal izateko.

### V. 1. Aurrekontuaren betetzearen inguruko iruzkin nagusiak

Iritziari buruzko III. atalean esandakoarekin bat etorriz, aurrekontu betetzearen ondoriozko alderdiok azpimarratuko ditugu.

1994an indarrean izan den aurrekontua 1993koa da 1994koa ez bait zen onartu eta, beraz, aurreko urtekoa luzatu egin zen. Toki Administrazioari buruzko 6/90 Foru Legeak 274. artikuluan dioenez "aurrekontuaren luzapenak ez du eraginik izanen aurreko ekitaldian bukatu beharreko programa edo zerbitzuetan eta ezta berauen finanziazioa ez ohiko dirusarreretan oinarritutakoetan ere".

Honek esan nahi du 1994an eginiko obra batzuk, legearen arabera, ez dutela aurrekonturik izan.

Aurrekontua betetzean ez da gastuaren izaera mugatua errespetatu eta horregatik zenbait kapitulutan, langileria eta korrituetan bereziki, onarturiko betebeharrak aurrekontu maileguak baino handiagoak dira. Ez da, beraz, egin beharreko aurrekontu aldaketarik egin.

Ekitaldiko aurrekontuaren kitapenak, erresultak deskontatu ondoren, 4.280.211 pezetako superabita azaltzen du, aldian kitaturiko eskubideek 558.319.594 pezeta jotzen dute eta onartutako obligazioek 554.039.373 pezeta.

Gastuen aurrekontuaren guztizko betetze maila 1994an % 71 izan da, kapitulurik garrantzitsuena inbertsio errealetakoa izan dela, aitortutako betebehar guztien %50 delarik; langilerian %18 gastatu da eta ohiko ondare eta zerbitzuen erosketetan %15.

Dirusarreren aurrekontuaren guztizko betetze maila 1994an %73 izan da, kapitulurik garrantzitsuena (%35) kapital transferentziak izan delarik; ondoren ohiko transferentziak eta pasibo finantzieroak datoz (bakoitzak %23).

Aurreko lerroaldeen arabera, hona gomendioak:

*Indarrean dagoen legerian ezarritako epeak betetzea, Udalaren aurrekontuaren behin betiko onespenari dagokionez, honek aurrekontua kudeaketarako oinarrizko tresna gisa erabiltzeko bidea emanen baitu.*

*Ekitaldian zehar dauden aldaketak mailegu-aldaketatzat jotzea, luzatutako aurrekontua ekitaldiko aurrekontu garapenaren beharretara egokitzeko.*

## V. 2. 1994ko Abenduaren 31ko egoera ekonomikoa

Emandako informazioaren arabera eta txosten honetan jasotzen diren iruzkinak kontuan hartuz, hona Udalaren egoera finantzieroa 1994ko abenduaren 31an:

| | Pezetak |
|---|---|
| Dirusarreren erresultak | 23.321.578 |
| Diruzaintza saldoa | 15.138.106 |
| Gastuen erresultak | (56.078.132) |
| Gerakina | (17.618.448) |

Gerakin negatibo hau zenbatu ez diren 1994ko gastuetara egokitu beharko litzateke (gutxienez inbertsio gastuak) eta 1994an eginiko eta zenbaturiko inbertsioetarako dirulaguntzetara (22 milioi). Bestalde, dirusarreren erresultetan sartutako zordunen dirutza ere ez da behar bezala egokitu.

Ondoren ratio eta magnitude batzuk aurkeztuko dugu, Udalak aurkezturiko 1992, 1993, 1994 eta 1995ko aurrekontu betetzeetatik ateratakoak.

| Ratio eta magnitudeak | 1995(A) | 1994 | 1993(A) | 1992(A) |
|---|---|---|---|---|
| Aurrezki godina (1) | 32.497.511 | 12.225.446 | 23.895.851 | 58.306.006 |
| Aurrezki garbia (2) | (13.184.941) | (25.549.450) | (9.162.666) | 23.320.979 |
| Aurrezki maila garbia (5) | (5,4%) | (11,5%) | (4,3%) | 12% |
| Zorpetze maila (3) | 18,7% | 17% | 15,6% | 17,7% |
| Zorpetze muga (4) | 13,3% | 5,5% | 11,3% | 30% |
| Zerga dirusarrerak, per capita | 29.252 | 28.172 | 23.828 | 20.800 |
| Invertsioak, per capita | 26.672 | 97.495 | 50.782 | 12.995 |

(A) 1992, 1993, eta 1995ko ekitaldietatik ateratako datuak ikuskatu gabe daude

(1) Ohiko dirusarrerak-Iharduera gastua

(2) Aurrezki gordina-Zama finantzieroa (korrituak + Amortizazioa – diruzaintzako kredituen amortizazioa).

(3) Zama finantzieroa/ Ohiko dirusarrerak X 100

(4) Aurrezki gordina/Ohiko dirusarrerak X 100

(5) Aurrezki garbia/ Ohiko dirusarrerak X 100

Eskuraturiko datuak alderatuz gero ateratzen diren ondorioak honako hauek dira:

• 1993 eta 1994ko inbertsioek zorpetze maila, pasibo finantzieroak eta zama finantzieroa nabarmen handitu dituzte.

• Zama finantziero honi 1990an B.C.L.rekin kontzertaturiko maileguena (guztira 162 milioi) gehitu behar zaio. Maileguen xedea 89-91 hirurteko planaren inbertsioak finantzatzea zen. 1994 eta 1995ko amaieran banku berak maileguak birfinantzatu zituen eta amortizazio epea sei urtetik hamabostera luzatu zen.

Honako hauek zenbait datu interesgarriren eboluzioaren isla dira:

| Epea | Eginiko inbertsioak | Jasotako kapital transferentziak | Estalduraren % | Urteko eta biztanleko inbertsioa | Zor bizia | Zama finantzieroa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 89-91 | 858.320.330 | 569.402.403 | 66,3% | 90.511 | 178.189.556 | 59.726.459 |
| 1992 | 41.078.927 | 37.956.642 | 92% | 12.995 | 178.628.633 | 34.976.027 |
| 1993 | 159.863.315 | 89.999.720 | 56% | 50.782 | 162.742.249 | 33.058.517 |
| 1994 | 306.914.797 | 202.967.414 | 66% | 97.495 | 277.954.769 | 37.774.896 |
| 1995 | 83.992.903 | 51.709.089 | 62% | 26.672 | 321.876.354 | 45.681.870 |
| Guztira | 1.450.170.272 | 952.038.268 | 65,6% | 65.640 | | |

Iturria: Leitzako Udala

• Kuadroan ikus daitekeenez, 89-96 epean kapital transferentziek eginiko inbertsioen %65,6 finantzatu dute. Gainerako %34,4 bankuekiko zorpetzeak finantzatu du, batez ere epe horretan 376 milioiko aurrerapen eta mailegu hitzartu baitira (salbuespena diruzaintzako maileguen zenbaketa da). 94-12-31n aurrerapen eta maileguek sorturiko zorraren zenbatekoa 277.954.176 pezetakoa zen eta 95-12-31n 321.876.364 pezetara igo zen.

• Aurrekontu kitapenaren arabera, 96.143.728 pezetakoa izan da amortizazioa diruzaintzako maileguena alde batera utzita. Dirutza horretatik 1989 baino lehen kontzertaturiko maileguen amortizazioa 41 milioikoa da eta 1989tik 1995ra hitzarturiko maileguen amortizazioa 55 milioikoa da.

• Zama finantzierorik ez balego egin litekeen inbertsioa adierazten duen aurrezki gordina 12,2 milioikoa besterik ez da 1994an eta 32,4 milioikoa hurrengo urtean.

• Hala ere, zama finantzieroa ordainduta aurrezki negatiboa du 1993tik urtebete beranduago %11,5ra iritsiz. 1995an egoera hobetu da aurrezki negatiboa %5,4ra jaitsi baita. Honek esan nahi du Udalak ohiko gastuei aurre egiteko ere zorpetzeari eutsi behar diola.

• Leitzako Udalak, beraz, 1994an ez du behar hainbat errekurtso sortu zama finantzieroari aurre egiteko eta gauza bera gertatu da

1995an. Datozen ekitaldietan egoerak hobea izan behar luke zorraren zati handi bat (136,9 milioi) epe luzeagoan birfinantzatu delako.

Bere errekurtsoekin zama finantzieroari aurre egiteko dituen arazoak ikusita, pentsatzekoa da zama finantzieroa ordaintzeko zorpetzea handitu eginen dela eta horrek egoera larriagotuko luke.

• Bestalde, Leitzan presio fiskala (zergen dirusarrerak, per capita) Nafarroako udalen bataz bestekoa baino murritzagoa izan da.

| | Udalen bataz bestekoa | | Leitza | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | % | Zenbatekoa | % | Zenbatekoa | Aldea | % |
| 1992 | 100 | 28.169 | 100 | 20.800 | 7.369 | 27 |
| 1993 | 113 | 31.779 | 115 | 23.828 | 7.951 | 25 |
| 1994 | 144 | 40.679 | 131 | 27.325 | 13.354 | 33 |

5.000 biztanletik beherako udalen datua kontuan hartzen badugu (bataz bestekoa 44.234 pezeta biztanleko eta urteko) aldea 16.909 pezetara igotzen da.

Zergen dirusarrerak per capita (presio fiskala) 1993tik 1994ra %14,6 handitu zen. 1993ko BEZaren kitapena kenduta (9.208.200) igoera %1,2 besterik ez litzateke.

Egoera finantzieroaz kezkaturik, txosten egitena ari ginen bitartean Leitzako Udalak honako erabakiak hartu ditu:

• Zorra epe luzeagoan birfinantzatzea, oso larriak izan diren hurrengo 2-3 urteetako finantza zama gutxitzeko asmoz.

• Inbertsioak eta zorpetzea mugatzea. Nafarroako Gobernuak erabat finantzatutakoak edo kontribuzio bereziekin egin ezean, behar beharrezkoak besterik ez lirateke egin beharko.

• Zama finantzieroaren prebisioa epe luzean egitea.

• Diruzaintzako prebisioak erabiltzea.

• Iharduera gastuak gutxitu eta berauen hazkundea mugatzea. Horren ondorioz 1995an %1,2 igo dira.

Harturiko neurrien artean 1995ko ohiko dirusarrerak hobetzea dago (1994ko datuekin alderatuz, %10). Zergen datuak ikusirik, argi dago presio fiskalean alde handia duela Udalak aurrekontu dirusarrerak handitzeko. Lehen aipaturiko 5.000 biztanletik beherako udalen bataz bestekoa kontuan hartuz, eta beste azterketarik egin gabe, dirusarreren igoera 50 milioikoa litzateke.

Gure gomendioa da datozen urteotarako bidegarritasun plana egin dadin. Planak harturiko neurriak eta etorkizunean beharrezkoak izanen direnak bildu beharko lituzke.

## V. 3. Kontratazioa

### *V. 3. 1. Aurrekariak eta azterturiko lan espedienteak.*

Txostenaren II atalean esan dugun bezala, Leitzako Udaleko idazkariak 1994ko azaroaren 17an idatzitako txosten batean herri lanen esleipenetan eta Nafarroako Gobernuak emaniko dirulaguntzen kobrantzan Udalak eginiko arau-hausteak salatu zituen.

Leitzako Udalak, 1994ko abenduaren 23ko osoko bilkuran, txostena aztertu eta esandakoa, oro har, egia zela aitortu ondoren, aho batez, Nafarroako Kontuen Ganbarara bidaltzea erabaki zuen erakunde honek azter zezan.

Aurreraki hauek guztiak kontuan hartuz, Kontuen Ganbarak Udalak 1989-1994 epean adjudikaturiko obra nagusien kontratazio espedienteak sakonki aztertu ditu.

Ondoren aurkezten ditugun kuadroak obra hauen ezaugarri nagusiak biltzen ditu:

| | Hasierako aurrek. | Esleipena | Ziurtagiria | Esleipen data |
|---|---|---|---|---|
| Ur sarearen lehen berrikuntza | 128.958.944 | 128.833.252 | 143.165.080 | 15/09/89 |
| Karriken zoladura eta argikuntza 1. | 187.318.951 | 187.133.145 | 191.189.663 | 15/09/89 |
| Bide pabimentazioa | 186.920.147 | 186.554.447 | 230.701.348 | 04/12/89 |
| Erasoteko biderapena | 37.005.378 | 36.820.351 | 36.988.372 | 15/09/89 |
| Argikuntza publikoa (instalaz.) | 55.028.047 | 54.870.000 | 60.664.198 | 18/01/90 |
| Ur sarearen berrikuntza 2. (1) | 89.464.382 | 45.678.968 | 108.662.947 | 30/12/92 |
| Karriken zoladura 2. (1) | 34.320.078 | | 30/12/92 | |
| Eurizkoak (1) | 21.381.569 | 21.381.569 | | 30/04/93 |
| Zeharkalea | 147.482.439 | 150.524.265 | 142.973.706 | 09/12/93 |
| Espaloiak | 58.758.816 | 59.970.718 | 63.834.710 | 09/12/93 |
| Gasbidea 1. | 11.019.647 | 11.019.647 | 12.850.184 | 25/06/93 |
| Gasbidea 2. | 23.958.110 | 23.958.110 | 27.359.018 | 17/05/94 |
| Gasbidea 2. | 12.727.958 | 12.727.958 | 13.403.656 | 30/09/94 |
| Total obra | 960.024.388 | 953.792.508 | 1.031.792.882 | |

(1) Ziurtagiri berean aurkeztuta

Kuadroan ikusten den bezala, adjudikaturiko zenbatekoa 953.792.508 pezetakoa da eta burututakoa 1.031.792.882 pezetakoa (adjudikatutakoaren gaineko aldea %8,5). Aipatzekoa da "bide zoladura" espedientean dagoen 44.146.901 pezetako desbiderapena (adjudikazio preziotik %24 gehiago). Hori eragin zuen obraren luzapenaren onarpenarik ez da ageri.

Obra hauek, gehienak, Nafarroako Gobernuak finantzatu ditu neurri handi batean tokiko azpiestruktura plan barruan zeudelako. Diru-laguntzaren portzentaia zertifikatutako obraren % 64,26tik ("ur sarearen bigarren fasea") %100ra doa azken porzentaia hau "Zeharkalea" obra espedienteari dagokiolarik.

"Ur sareen aldaketaren bigarren fasea", "Karriketako zuladura" eta "Eurizkoak" espedienteei buruzko obrak zirtagiri bakar batean likidatuagatik ere, proiektu ezberdinetan daude.

Honen osagarri, inbertsio txikiagoko 1994ko beste espediente batzuk aztertu ditugu hauen zenbateko orokorra 46.493.523 pezetakoa delarik.

*V. 3. 2. Espedienteen legezkotasuna eta indarrean dagoen arauteriarekiko egokipena*

Nafarroako Kontuen Ganbarak eginiko espedienteen azterketak irregulartasun eta arau-hauste aunitz antzeman ditu. Arau-hauste hauek, bereziki, Nafarroako Administrazioaren kontratuak arautzen dituen 19/86 Foru Legeari dagozkie aztertutako obra guztietan eta birpasatutako kontratazio espedienteen fase guztietan.

Arau-hauste esanguratsuenak honako hauek dira:

a) Kontratatuaren hasierako fasea

Zenbait obratan fase honetan antzeman ditugun arau-hauste larrienak hauexek dira: administrazio-oinarri partikularren plegurik eza, proiektu teknikorik eza, aurrekonturik gabeko kontratuen adjudikazioa, kontu-hartzailetzaren txostenik eza, kontratatuei sailkapenaren egiaztagiria eta zergen ordainketa eta gizarte segurantzaren kuotak egunean dituzten egiaztagiria eskatu ez izana, obren proiektuen birplanteaketarik eza, etab.

b) Enkante eta adjudikazioaren fasea

Beste ezer aipatu baino lehen azpimarratu behar da aztertutako espediente guztietan adjudikazioa Udalaren osoko bilkurak onartu duela eta, gehienetan, aho batez.

Fase honetan konklusiorik argiena da zuzeneko kontratazioaren erabilpena sistematikoa eta neurriz gainekoa dela. Aztertu ditugun obren kontratu guztiak zuzeneko kontratazio bidez egin dira, publizitaterik gabe eta, batzuetan, hori zilegi dezakeen arrazoirik eman gabe edo arrazoia emanda ere (presa, gehienetan) benetakoa dela justifikatu gabe.

Bestalde, zenbait kasutan, zuzeneko kontratazioa arauteriak agindutako hiru eskaintzak eskatu gabe egin da eta, bestetan, nahiz eta eskaintza egin, ez dirudi konkurrentzia benetakoa denik.

Hau guztia kontuan hartuta, argi dago proiektuaren erredakzioa eta obraren zuzendaritza teknikoa tekniko bakar bati ematen zitzaiola eta obraren exekuzioa ere eraikitzaile bati ematen zitzaiola.

Horren ondorioz publizitate eta konkurrentziaren printzipioak hautsi egin dira. Legeak dioenez funtsezkoak diren bi printzipio hauek beharrezkoak dira kontratazio administratiboaren fase honetan.

Oinarri hauek behin eta berriz hausteaz gainera, fase honetan indarrean dagoen kontratazio arauterian irregulartasun larriak izan dira. Esate baterako, kontratatu berberak bi proposamen ekonomiko ezberdin egitea eta adjudikazioa proposamen garestienari ematea, enkantegileak eskainitako preziotik gorako adjudikazioak egitea edo, kontratatuak, Udalaren baimenaz, zenbateko zehatz bateraino obra batzuk "dohainik" egiteko konpromezua hartzea.

d) Kontratuaren burutzea eta exejuzioa

Fase honetan antzeman ditugun arau-hausteak honako hauek dira: behin betiko finantzarik eza, kontratua legeak agintzen duen epetik kanpo betetzea, kontratazio erakundeak onartu ez dituen aldaketak, birplanteaketaren egiaztapen-aktarik eza, etab. Halaber, kontratua burutu baino lau hilabete lehenago eginiko ziurtagiriak antzeman ditugu. Ziurtagiri hauek ontzat hartu ditu Herri Lan Departamentuak dirulaguntzak ematerakoan.

Azpimarratzekoa da burututako obra batzuk ez dutela legeak agindutako prozedura bakar bat ere: proiekturik gabe, administrazio-baldintzen plegurik gabe, esleipenik gabe, obraren harrerarik gabe eta aurrekontu isladarik gabe.

Beraz, ondorio gisa esan dezakegu Leitzako Udalak kontratazio arloan irregulartasun eta Kontratuen Foru Legearen arau-hauste aunitz egin dituela. Larriak diren horietako asko behin eta berriz egin izan dira. Idazkariak jokaera horiek legezkanpokoak zirela adierazi zion Udalari aurrekonturik ez zuten lau espedientetan eta beste batzuetan urgentziazko prozeduraren aurka agertu zen txosten zehatzetan, beste kontratazio sistemak proposatuz.

## V. 3. Leitzako Udalak jasotako dirulaguntzak zegozkionak baino handiagoak izan litezke

1994ko azaroaren 17an idazkariak eginiko txostenak zioenez, Leitzako Udalaren ohiko jokabidea zen, zenbat herri lanetarako, jasotako dirulaguntza handiagoa izatea benetan eginiko lanengatik zegokiona baino. Horri esker, soberan gelditzen zen diruarekin tokiko azpiestruktura planetan sarturik ez zeuden beste obra batzuk finantzatzen zituen.

Kontuen Ganbarak eginiko azterketaren arabera, badira idazkariak bere txostenean salaturikoa frogatzen ahal duten zenbait gertaera eta froga. Ondoren aipatzen ditugunak dira:

a) Zenbait espedientetan ("Bide pabimentazioa", "Ur sareen aldaketa 2. fasea" eta "Karriketako pabimentazioa 2. fasea") bi eskaintza ekonomiko daude, biak enkantegile berberak eginak eta eskaintza berari dagozkio. Harritzekoa bada ere, udalak eskainitako preziorik garestiena onartzen du. Beste batzutan ("Argikuntza publikoa" eta "Zeharkale eta espaloiak") esleipenaren zenbatekoa enkantegileak eskainitako prezioa baino handiagoa da.

b) Kontratatuek udalaren aldeko gezurrezko zorrak onartzen dituzte

Hau "Bide pabimentazioa" (12,4 milioi), "Argikuntza publikoa" (6,4 milioi) eta "Zeharkale eta espaloiak" (5 milioi) espedienteetan antzeman dugu. Hiru kasuotan kontratatuak udalaren aldeko zorrak onartzen baditu ere, eginiko fakturak gezurrezkoak direla dirudi honako arrazoiengatik:

- Kontratatuaren zorra Udalak eginiko salmenta, lan edo zerbitzuek justifika lezakete baina ez dago horren berririk, ez horri buruzko espediente edo txostenik eta ezta Udalak horiek onartzeko harturiko erabakirik ere.
- Kontratuen adjudikazioaren zenbatekoa eskainitakoa baino handiagoa izatea bien arteko aldea onarturiko zorraren zenbateko bera izanik.
- Konpentsazioa kontratua adjudikatzean edo egun batzuk beranduago onartzea.

d) Ziurtagiri bikoiztuta eta edukin ezberdinarekin

Hau "Eurizko sareen aldaketa, eurizkoak eta pabimentazioa 2. fasea" espedientean frogatu da. Hasieran hiru proiektu ezberdin ziren baina kitapena ziurtagiri bakar baten bidez egin zen. Kasu honetan badira obraren zuzendaritzak kontratatuaren baimenaz eginiko "benetako ziurtagiriak" udaletxean bakarrik gordetzen direnak; eta, bes-

talde, badira beste batzuk, "ziurtagiriak" deitutakoak. Azken hauetan aipatutako sinadurez gain, alkatearena ere agertzen da. Azken hauek dira hasieran onartutako dirulaguntzak jasotzeko Toki Administrazio Departamentuari aurkezten zaizkionak.

Aipatu behar dugu azken zenbatekoa bera dela "benetako" eta ziurtagiri "ofizial"ean. Ondoren aurkezten dugun kuadroan ikus daitekeen bezala, obraren kontzeptu bakoitzari dagozkion zenbateko partzialak, aldiz, ezberdinak dira:

| | Proiektua | Adjudikazioa | Nafarroako Gobernuaren ziurtagiria | Udalaren benetako ziurtagiria |
|---|---|---|---|---|
| Hornikuntza eta saneamendua | 51.083.614 | 45.678.968 | 53.058.635 | 43.598.701 |
| Eurizkoak | 21.381.569 | 21.381.569 | 16.819.437 | 16.454.071 |
| Pavimentazioa | 38.380.762 | 34.320.078 | 37.439.365 | 47.264.666 |
| Beste batzuk | — | (1.500.000) | 1.345.513 | 1.345.513 |
| Guztira | 110.845.946 | 99.880.615 | 108.662.949 | 108.662.950 |

Bi ziurtagirien zenbateko osoa bera izateak honek guztiak ez duela garrantzirik pentsarazi lezake. Hala ere, aipatu behar da proiektu ezberdinak izanik "1992ko Tokiko azpiestruktura obren plana" arautzen duen 124/92 Foru Dekretuaren arabera (obra hauei dagokiena) zenbateko partzialak bi ziurtagirietan ezberdinak izateak baduela garrantzirik.

Izan ere, proiektu bakoitzak jaso dezakeen dirulaguntza oinarria kontuan hartuz, argi dago Toki Administrazioan "benetako ziurtagiriak" aurkeztuz gero, jasotako dirulaguntza "ziurtagiri ofizial"ekin lortutakoa baino murritzagoa izango zela.

e) V.3.2.d) atalean azaldu dugun bezala, benetan harrigarria da "Patxi Arrazola" izeneko auzoan hornikuntza, saneamendu eta pabimentazio lanak izatea. Lan horiei buruzko kontratazio espedienterik ez da, aurrekontuetan ere ez da horren berririk eta, beraz, lan horiek burutu direla inon ez da agertzen.

Halaber, batera adjudikatutako "Ur Sareen Aldaketa, eurizkoak eta pabimentazioa 2. fasea" espedienteei dagokienez, aipatu behar da kontratistak Udalari ondoren zehaztuko ziren 1.500.000 milioiko lanak "oparitzeko" konpromezua hartzen duela, Udalari deus kobratu gabe. Hau indarrean dagoen legeak kontratazio prozeduretan arautzen duenaren aurkakoa da.

Hau dena kontuan hartuz, Kontuen Ganbararen ustez Leitzako Udalaren ihardueran Nafarroako Gobernutik hirurteko planetan sarturiko obrengatik zegokiona baino gehiago kobratzeko irregulartasun

batzuk egin direla esateko aina arrasto badago: Proiektuen benetako kostuaren gaineko adjudikazioak, ziurtagiri bikoitzak, etab. Antza denez, proiektuak adjudikatari bakar bati emateak eta lan zuzendaritzan pertsona bera aritzeak jokamolde horiek erraztu dituzte.

*V. 3. 4. Nafarroako Gobernuko Toki Administrazio Departamentuaren jokabidea*

Azpiestruktura planen arauteriaren arabera, dirulaguntzak jasotzeko dokumentazioa Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioan aurkeztuko dira. Ordainketa onartu baino lehen, zerbitzu teknikoek txostena eta obren ikuskapena eginen dute. Halaber, aurkezturiko dokumentazioa aztertuko dute beharrezkotzat jotako egiaztapenak eginez eta, beharrezkoa izanez gero, dokumentazio gehigarria eskainiz.

Txosten hauek aztertu ondoren, oso eskematikoak direnez gero, ezin izan dugu argitu Departamentuko teknikoen azterketak zenbaterainokoak ziren. Dena den, ziurtagirian dagoen obra burutu dela eta dokumentazioarekin ados daudela diote.

Gure iritziz, Leitzako Udalak obren benetako kostuaren arabera zegozkionak baino dirulaguntza handiagoak jaso baldin baditu baliteke Toki Administrazio Departamentuaren kontrola eta obren jarraipena eskasa izatea. Aipatu Departamentuak hori egiaztatu eta, hemendik aurrera, dirulaguntza ematerakoan kontrolak areagotu beharko lituzke. Bereziki, proiektuak egin beharreko lanei eta ziurtagiriak adjudikatutako proiektuei egokitzen zaizkiela frogatu beharko luke.

*V. 3. 5. Ondorioak*

Hona hemen kontratazioari buruzko arloaren laburpena:

- **Azterturiko kontratazio espediente guztietan indarrean dagoen kontratazioari buruzko legediaren arau-hauste formalak eta materialak ugariak eta larriak dira. Arau-hausteak espediente guztietan eta kontratazio fase guztietan antzeman ditugu.**

- **Idazkariak 1994ko azaroaren 17ko txostenak salatzen dituen gertaera gehienak egiaztatzeko aina arrasto badago. Horren arabera, Leitzako Udalak Nafarroako Gobernuari burututako obrengatik zegozkionak baino dirulaguntza handiagoak kobratzeko mekanismo batzuk erabili izan ditu. Dirutza horrekin toki azpiestruktura planetan sarturik ez zeuden beste obra batzuk egiten zituen.**

- **Publizitate eta konkurrentzia faltaz baliatuz, gehienetan, proiektuen erredakzioa eta obren zuzendaritza tekniko berak egin ditu eta obrak egiteko kontrataturiko enpresa ere bera izan da. Horrek aipatutako jokamoldeak erraztu bide ditu**

**• Nafarroako Gobernuko Toki Administrazio Departamentuak, legez toki azpiestruktura planak finantzaturiko obren dokumentazioa egiaztatzeko arduradun den neurrian, obren kontrol eta jarraipena desegokia egin dituela dirudi.**

*Leitzako Gobernuari indarrean dauden kontratazio arau eta prozedurak betetzeko gomendioa ematen diogu.*

*Halaber, gure gomendioa da Nafarroako Gobernuak atal honetan azaldutako gertaerak argitzeko eta kalteturik gerta litezkeen diru-eskubideak babesteko neurriak har ditzan.*

*Azkenik, gure gomendioa da Nafarroako Gobernuak, hemendik aurrera jokabide hauek errepika ez daitezen, kontrolak areago ditzan.*

## V. 4. Udal arteko hitzarmenak

Leitzako Udalak beste toki entitaterekin sinaturik dituen kolaborazio hitzarmenen bidez eskualdeko zerbitzu batzuk eskaintzen ditu. Zerbitzu horien funtzionamendua Leitzako Udaletxean dago zentralizaturik. Berauen kontrola aurrekontu eta kitapen indepedienteen bitartez egiten bada ere, dirusarrera eta gastu guztiek Udalaren aurrekontuan islatzen dira.

Gastua toki entitateen artean dago banaturik biztanle kopuruaren arabera eta Udalak dirutza bat kobratzen du kudeaketa egiteagatik. Kolaborazio hitzarmenak honako hauek dira:

- Oinarrizko zerbitzu soziala
  1994ko gastua: 13.113.293 pezeta
  Kideak: Leitza, Areso, Goizueta eta Arano.

- Hiru hondakin solidoak
  1994ko gastua: 18.266.519 pezeta.
  Kideak: Leitza, Areso eta Larraun

- Euskara Zerbitzua
  1994ko gastua: 23.945.089 pezeta
  Kideak: Leitza, Araitz, Arano, Areso, Atez, Basaburua, Betelu, Goizueta, Imotz, Lantz, Larraun, Odieta eta Ultzama.

Honez gain, Udalak hitzarmen bat sinatu du Larraun, Basaburua, Goizueta, Betelu eta Ultzamarekin Aralar Musika Eskola sortzeko eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kidea da.

Kolaborazio hitzarmenetarako ez da pertsona juridikorik sortu eta, beraz, lanbide horietan ari diren langileak edo sinaturiko zerbitzu kontratuek arazoak sortzen dituzte udal kudeatzaileari lotuta daudelako (Leitza da kudeatzailea, hasieran aipatutako hiru hitzarmenetan).

Bestalde, gastu guztiak udal aurrekontuetan sartzeak aurrekontua igo egiten du. 1994an ohiko transferentziatzat hartutako igoera hori 18.335.207 pezetakoa da. Honek zordunak sor ditzake eta horixe gertatu da. 1994ko amaieran Larraungo Udalak 6.207.727 pezetako dirutza zor zion Leitzari hondakin bilketagatik.

Aurreko gorabeherak ikusirik, hona hemen gure gomendioa:

*Eskualdeko zerbitzuoi pertsonalitate juridikoa emateko beharra aztertzea. Ekintzak ezberdinak izateaz gain, hartzen duten eremu ezberdina kontuan harturik, erakunde bakarrean sartuz gero toki entitate guztiek ados jartzeko ahalegina egin behar lukete.*

## V. 5. Intereseko beste zenbat arlo

### a) Langileriaren soldatak

1. kapituluak, funtsean, Udaleko funtzionarioen, laboralen eta behin behineko kontratatuen soldatak, Gizarte Segurantzaren kuotak, montepiorenak eta bosturtekoak biltzen ditu. Onarturiko obligazioak 107.842.485 pezetakoak dira, gastu guztien %18.

Hona hemen Udalaren langileria 1994ko abenduaren 31an:

| | Zenbat | Porzentaia |
|---|---|---|
| Funzionarioak | 4 | 10 |
| Lan kontratupeko finkoak | 2 | 5 |
| Lan kontratupeko finko etendunak | 2 | 5 |
| Lan kontratupeko finkoak lanaldi murritzarekin | 2 | 5 |
| Langileri finkoa, guztira | 10 | 25 |
| Aldi baterako lan kontratupekoak | 11 | 26 |
| Aldi baterako lan kontratupekoak lanaldi murritzarekin | 20 | 49 |
| Aldi baterako langileria, guztira | 31 | 75 |
| Langileak, guztira | 41 | 100 |

Udaleko langileriaren organigrama lehen eraskinean dago.

Langileriari buruz eginiko azterketaren ondorioak honako hauek dira:

- Plantila organikoa 1994ko urtarrilaren 28ko osoko bilkurak onartu eta 1994ko martxoaren 14ko N.A.O.k argitaratu zuen. Bertan, organigrama onartu zen egunean lanean ari ziren aldi bereko langileen zerrenda agertzen da.

- Plantilan kolaborazio hitzarmen bitartez eginiko zerbitzuetako langileak ere agertzen dira. Guztira 9 lagun dira, aldi baterako lan kontratudunak (3 lanaldi murritzarekin) eta beraien soldatak ordaintzeko Nafarroako Gobernuak portzentai ezberdineko dirulaguntzak ematen ditu.

- Zerbitzu orokorretako lan kontratupekoen kontratazioa alkateak berak egin du publizitatea, ahalmena eta meritoak kontuan hartzen dituen aukeraketa prozesurik gabe. Hori Administrazioan sartzeko derrigorrezko eskakizuna da, nahiz eta kontratua aldi baterakoa izan. Horrela kontratatudoes langileen kopurua 1994ko urtarrilaren 1an 10 ziren.

91-94 epean jokamolde hau erabiliz eginiko kontratazioak 60 izan ziren kontratuen berrikuntzak kontuan hartu gabe.

• Nafarroako Gobernuaren eskariaren ondorioz, Nafarroako Justizi Epaitegi Gorenak sententzia bidez bertan behera utzi zuen udal haurtzaindegiko bi hezitzaileak langile finko bihurtzeko Udalak 1990ko irailaren 7an hartutako erabakia. Hala ere, langileak 1995ko ekainaren 16ko osoko bilkuran onartu eta 1995ko ekainaren 16ko NAOk argitaratutako plantila organikoak "finko"tzat hartzen ditu. Beraz, aipatu sententzia ez da bete.

Aurreko lerroaldeen arabera, hona gure gomendioak:

*Udalaren benetako beharrak aztertu eta plantila organikoak islatzea aurrekontu ekitaldiari egokituta. Azken urteotan horrela egin beharrean, plantila organikoak onartutako datan lanean ari zirenen zerrenda bildu besterik ez du egin.*

*Langile kopuruari dagokionez, "Kolaborazio hitzarmenak" atalean sistema honen bidez betetzen diren zerbitzuetako langileen egoerari buruz esandakoa gogoratu nahi dugu.*

*Azkenik, esan beharra dago aipatutako sententziak agerian utzi duen bezala, Udalak ez duela langileen kontratazio arloan (ez aldi baterakoekin, ez finkoekin) legea behar bezala bete. Horregatik, indarrean dagoen arauteria betetzera behartuta dagoela gogorazi nahi diogu udalari.*

b) Ohiko ondasun eta zerbitzuen erosketa

Bigarren kapituluak Udalaren funtzionamendu eta bere ekitaldien garapenerako beharrezkoak diren gastuak biltzen ditu. Zenbatekoa 88.915.144 pezetakoa da, onarturiko gastu osoaren % 15.

Prozedurak eta zenbatutako zenbatekoak birpasatuta, hona gure egiaztapenak:

• Gastuen fakturak Erosketa Batzordeak onartzen ditu. Onarpena fakturan bertan azaltzen da. Eskakizun hau dela eta periodifikazio mozketan akatsak sortzen ditu baina zenbatekoan ez da desbideraketa garrantzitsurik antzeman hurrengo puntuan aipatuko duguna ezik.

• Zabor zerbitzuak sorturiko gastuak kapituluaren handienak dira. Gastuen periodifikazio desegokiaren ondorioz, 1993ko bigarren seihilekoko gastuak 1994an sartu dira, zenbatekoa 5.195.796 pezetakoa delarik. Kolaborazio hitzarmenak arautako ekitaldia izanik, eta, beraz, hitzarmenaren gainerako sinatzaileen dirusarrerak kobrantza horri loturik egonda, behinbehinean bada ere, diru mugimenduak eta dagozkien kitapenak hobeki egokitzea premiazkoa da.

• Kapitulu honetan "ohiko ondare eta zerbitzuen erosketa"tzat hartutako batzuk 4. kapituluari dagozkiola antzeman dugu (ohiko trans-

ferentziak). Diru partida hauek Euskara Zerbitzuaren ekitaldiei dagozkie (Euskaltegiarendako 3,5 milioiko dirulaguntza).

Aurrekoa ikusirik, hona gure gomendioa:

*Epe arteko transazio ebakerak hobetzea, berreskuratu beharreko gastuenak bereziki.*

*Kudeaketa sistema errazteko hitzarmen bidez eginiko zerbitzuen gastuak kapitulu honetan bildu arren, besteendako dirulaguntzak "transferentziak" kapituluan sartu behar direla gogoratu nahi dugu.*

d) Korrituak

Gastuen 3. kapituluak kontzertaturiko maileguen korrituak ezezik, ekitaldian sortutako beste finantza gastuak ere biltzen ditu.

Kitatutako obligazioak 18.789.413 pezetakoak izan dira, onartutako gastu osoaren %3.

Udalaren egoera ekonomiko larria dela medio, 1994an maileguen interesengatik ezezik honakoengatik ere finantza gastuak sortu dira:

- Kontu korrenteren zorpekoak eta gaindituak (117.207 pezeta).
- Birfinantzaketaren eta mailegu berrien irekidura komisioak (995.592 pezeta).

Hona gure gomendioak:

*Gastu kontzeptu ezberdinak ( komisioak, zorpeko interesak, finantza korrituak...) kontu ezberdineran zenbatzea elkartutako gastu ezberdinen eragina erakutsiz. Era berean, korrituen araberako gastu eta dirusarrerak bereiztea komenigarria litzateke, bakoitzari dagokion kapituluan zenbatuz.*

e) Ohiko transferentziak

Gastuen 4. kapituluak ohiko transferentziak finantziatzeko maileguak biltzen ditu. 1994ko likidazioa 12.592.047 pezetakoa da, onartutako gastu guztien %2.

Gaizki kobratutakoen itzulketaren zenbaketa kapitulu honetan egiten da. Itzulketa hauek transferentzietan zenbatu beharrean dirusarretan zenbatu beharko lirateke negatiboak direla agerian utziz.

Eginiko azterketaren ondorioz honako gai hauek azpimarratu nahi ditugu:

Kutxan zenbatzeko erabili den erizpideak eragiketen mozketan desbideraketak sortarazi ditu; horrela, 1994ko ekitaldian Euskara Zerbitzuak baditu Larraungo Udalarekin kitatu beharreko 2 milioiko gastuak, 1992 eta 1993 urteei dagozkienak.

• Antzeko zerbait gertatzen da Udalak ordaindu beharreko BEZ-en laugarren hiruhilekoari dagozkion kitapenekin.

• Azkenik, kapitulu honetan ikusi ditugun kultur ekitaldiei buruzko gastu batzuk (fakturek egiaztaturik) 2. kapituluan zenbatu behar lirateke.

• Udalak ez du ohiko dirulaguntzak eta kapital dirulaguntzak emateko arauteri berezirik.

Horregatik, hona gure aholkua:

*Eragiketen ebakera sistema hobetzea ekitaldi itxidura egokiagoa lortzeko.*

*Dirulaguntzak kobratzen ahal dituzten pertsona eta ekintzak zeintzuk diren argitzea kultur eta kirol ekitaldietan sorturiko gastuak behar bezala sailkatzeko; zentzu honetan, aurrekontuaren exekuzio-oinarrietan dirulaguntzak jasotzen dituzten guztiek bete beharreko arauteria sartzea gomendatzen dugu.*

f) Inbertsio errealak

"Inbertsio errealak" kapituluak onartutako obligazioak 306.914.797 pezetakoa da, onarturiko gastuaren %50.

Kontratazio espedienteeen azterketa eta beronen ondorio eta gomendioak txostenaren V. atalean biltzen dira.

g) Zergak

1994an likidatutako zuzeneko zergak (dirusarreren lehen kapitulua) hauexek dira: hiri-kontribuzioa, landa-kontribuzioa, abel-kontribuzioa eta lizentzia fiskala.

Kontzeptuongatik onartutako zenbatekoa 29.757.283 pezetakoa da eta aurrekontuaren % 5 da. Aurrekontuaren betetzea %113 izan da.

Likidatutako zeharkako zergen eskubideek (dirusarreren 2. kapitulua) 13.160.353 pezetako zenbatekoa dute, dirusarreren % 2 dira eta zirkulazio zerga eta Telefonicak hegalaldi, lur eta azpilurragatik ordaintzen dituen tasak biltzen dituzte. Kapitulu honen aurrekontuaren betetzea %107 izan da.

Zenbatzeko prozedurak eta zenbatutako kopuruak aztertu ondoren, honako hau egiaztatu dugu:

• Epez kanpo ordaindutako ordain-agiriei ez zaie luzamenduagatiko errekargurik kobratzen.

• Zirkulazio zergan ezik, Udalak Derrigorrezko Dirubilketa Agentziara zorratzat bidali arteko epean ez du premia gainkargurik kobratzen.

• Gainkargu hori zenbatzean ez da dirusarreratzat hartzen hitzartuta baita hori kanpoko dirubiltzailearen ordainsaria dela eta hark errekarguaren likidazio gordinak aurkezten ditu.

• Antzeman dugunez, agiri bidez kobratutakoak izanik luzagarriak ez izan arren, zergaordaintzaile bati luzapenak onartu zaizkiola (1993an onartuta). Aipatu zorrak hiri kontribuzioan, landa kontribuzioan eta lizentzia fiskalean du eragina. Horrek ez du luzapen interesik sortu. Atzeratutako zenbatekoaren kobrantza 6 milioikoaren ingurukoa zen.

• Udalaren egoera ekonomikoa larria izanagatik, zergak urtekoak dira eta ez sei hilabetekoak eta horrek diru arazoak gehitzen ditu. Helbideratuta dauden errezibo kopurua, bataz beste, %83 da baina zergen arabera aldatu egiten da %88tik (hiri kontribuzioa) %76ra (lizentzia fiskala).

94/12/31ko likidazioaren arabera, aurreko urteetako erresultengatik kobratzeke dagoen zenbatekoa 8.217.991 pezetakoa da. Epeka horrela bereiz dezakegu:

| Urtea | Zenbatekoa |
|---|---|
| 1993 | 3.370.297 |
| 1992 | 1.067.527 |
| 1991 | 1.152.773 |
| 1990 eta aurrekoak | 2.627.394 |
| Guztira | 8.217.991 |

Hau guztia ikusirik, honako hau gomendatu eta gogoratu nahi dugu:

*Nafarroako Toki Ogasun Arauteriak agintzen duen bezala, luzapen eta premia gainkarguak aplikatu behar dira luzamenduei buruzko arauak betez.*

*Horrela kobratzen ahal diren zergak sei hilabetekari bihurtzeko aukera aztertzea, horrek diruzaintzaren egoera hobetuko bailuke.*

*Kobratzeke daudenen azterketa aldiro eta xeheki egitea bi urtez gorako aintzinatasuna dutenak bereziki berrikusiz.*

h) Tasak eta beste dirusarrerak

Dirusarreren 3. kapituluak obren lizentziak, ur hornikuntza, estolderia, zolu jabetze tasak, probetxamendu batzuk, itzuli beharreko BEZ-aren kitapena eta beste batzuk biltzen ditu funtsean. Onartutako eskubideak 43.103.804 pezetakoak dira, dirusarreren %7.

Dirusarreren kapituluari egin zaion azterketaren ondorioz, honako hau egiaztatu dugu:

- Baloratu eta likidatu gabeko behin behineko obren lizentziak 32 dira ekitaldiaren amaieran. Horietako lau 1992koak dira. Lizentzia hauek horrela ematea arauteriaren aurkakoa da zergaren behin behineko kitapenaren kalkulua agintzen baitu.

- Ur hornikuntza eta zabor bilketari dagokionez, 1994an hiru hiruhilabetetako dirusarrerak besterik ez dira erregistratu. Urte osoa kontuan hartuz gero, 1,5 milioiko dirutza da 1994an zenbatu beharko zutena.

Ubide tasen kobrantzan Udalak badu arazo bat zentral hidroelektrika baten jabearekin. Udalak kitapenak bidaltzen baditu ere, ez dira zenbatzen eta ez da kobrantza agentzia ejekutiboaren bidez egiten. Orain arteko zenbatekoa (1991tik 1994ra) 762.198 pezetakoa da.

- Udalak kapitulu honetan "diruitzulera"tzat jotzen ditu lehenago aipatutako kolaborazio hitzarmenen administrazio gastuenak (Euskara Zerbitzua, Oinarrizko Gizarte Zerbitzua), zenbatekoa 1.000.000 pezeta delarik. Leitzako Udalari langileria euskaraz birziklatzeagatik dagokion dirulaguntza ere "diruitzuleratzat" hartzen da.

- BEZen kobrantzak eta udalaren aldeko diren BEZ kengarrien itzulketak ere dirusarreratzat hartzen dira. Kutxa erizpideari jarraituz ez du 1994ko azken likidazioa sartzen, bai ordea 1993koa. Hurrengo urtean ordaindutako likidazio honen zenbatekoa 9.208.200 pezetakoa izan zen.

Esan dugun bezala, BEZ kengarria eta ordaindu beharreko kitapenak gastuen 4. kapituluaren partidatan zenbatzen dira.

• Ohiandar probetxamenduei dagokienez, 1993ko zuzeneko esleipena antzeman dugu, 612.000 pezetakoa. Esleipen hau 1991an enkantean jarri eta eman gabe gelditu zen lote bati dagokio. Balorapen prezioa 4.488.360 zen eta espedientean ez da haren balorazio berririk agertzen.

Kasu guztietan kitapenen ordainketa atzerapen handiz egiten da.

Gehienetan enkantearen hasiera prozedurak (eskaintzak eskatu, publizitatea, etab.) ahoz egiten dira eta prozeduretan ez da kontratuaren esleipen formalik. Zenbaketa kutxa erizpidea erabiliz egiten da.

• Zabor probetxumenduari buruzko arauteri berezirik ez dugu aurkitu. Honek, dena den, ez du 1994an dirusarrerarik ekarri.

Aurreko lerroaldeen arabera honako hau gogoratu eta gomendatu nahi dugu:

*Ordenantzak obra-lizentziari buruz agintzen duena betetzea, behin behineko kitapena baimena eman baino lehen eginez, kasu guztietan.*

*Toki Administrazioetako Ondasun Arauteriak arautzen duen ohiandar probetxamenduen besterenganatzeari buruzko arauteria betetzea.*

*Aldizkako ordainagirien erregistroari dagokionez, periodifikazio egokia erabiltzea, zenbatekoak ezagunak baldin badira sortzapen erizpidea erabiliz.*

*Honek tasa eta kanonen sortzapenetik ohiandar ustiapenen dirusarreretarainokoa hartzen du.*

i) Jasotako ohiko eta kapital transferentziak

Dirusarreren 4. kapituluak (ohiko transferentziak) udalak zuzeneko kontraprestaziorik gabe jasotako zergaz besteko dirusarrerak biltzen ditu, Udalak ohiko eragiketak finantzatzeko erabiltzen dituenak. Kapitulu honetan dirusarrerak 134.689.148 pezetakoak izan dira, onartutako eskubide guztien %23.

Dirusarreren 7. kapituluan bildutako transferentzietan kapital eragiketen finantzaketarako dirulaguntzak biltzen dira. 1994an onartutako eskubideak 202.967.414 pezetakoak izan dira, onartutako zenbateko osoaren %35.

Zenbatutako kopuru eta prozedurak aztertu ondoren, honako hau egiaztatu dugu:

- Herriek Zabor Zerbitzuari egiten dizkioten ekarpenen artean 1993ko lau dirusarrera agertzen dira. 1994ko laugarren lauhilabetekoa, gastutzat zenbatuta egon arren, ez da agertzen.

- Kapitulu honetan bertan Nafarroako Gobernuak Aralarko mendi zerra eta Iribasko iturramaren garbiketagatik emaniko dirutza dago erregistraturik. Kobrantza faktura bidez egiten denez gero (BEZa barne) ez dirudi dirulaguntza denik eta, beraz, 3. kapituluan erregistratu beharko litzateke (tasak eta beste dirusarrerak).

- Azkenik, kapital transferentzien 7. kapituluan Udalak eginiko gasbidearen azpiegitura lana Repsol-Butanori uzteagatik kobraturiko ordainketak zenbatzen dira; Zenbaketa hori 5. kapituluan egokiagoa izango zela dirudi (ondare dirusarrerak) ezin baita dirulaguntzatzat jo.

Aurrekoaren arabera gure gomendioa da:

*Gastu eta dirusarreren arteko koerlazio erizpidea kontutan hartuz, dirusarreren periodifikazio eta sailkapen ekonomikoa ongi egitea.*

j) Pasibo finantzieroak

Dirusarreren 9. artikuluan epean jasotako maileguak bildu diren bitartean, gastuen 9. kapituluan pasibo finantzieroen amortizazioak zenbatu dira.

2. eraskinean Leitzako Udalaren maileguak xeheki aurkezten dira.

Zenbatutako kopuruak eta prozedurak aztertu ondoren honako hau egiaztatu dugu:

- Udalak 1994an mugaeguna urtebete beranduago zuten diruzaintzako bi mailegu sinatu zituen, zenbateko osoa 45 milioikoa izanik. Mailegu hauek aurrekontu kitapena egitean kitatu benarko ziren,

1994an beraz (Toki Ogasun Arauteriaren 91. artikulua). Maileguak 1995ko urtarrilean sinaturiko 105 milioko beste maileguaren barruan sartzen dira eta 10 urteko mugaeguna jartzen zaio. Argi dago, beraz, V. atalean genion bezala, defizita ez dela dirutzaintzakoa estrukturala baizik.

k) Diruzaintza

1994ko abenduaren 31ko diruzaintza kontua honako hau da:

| Kontzeptua | Hasierako izakinak | Dirusarrerak | Guztira | Ordainketak | Azken izakinak |
|---|---|---|---|---|---|
| Ohiko aurrek. guztira | (6.634.668) | 598.035.840 | 591.401.172 | 580.915.079 | 10.486.093 |
| ABI diruz | 4.261.024 | 21.169.544 | 25.430.568 | 20.778.555 | 4.652.013 |
| ABI valoreak | 21.149.910 | 16.419.509 | 37.569.419 | 9.312.864 | 28.256.555 |
| Guztira | 18.776.266 | 635.624.893 | 654.401.159 | 611.006.498 | 43.394.661 |

| Kontzeptua | Diruz | Baloreak | Guztira |
|---|---|---|---|
| Ohiko aurrekontua | 10.486.093 | 0 | 10.486.093 |
| ABI | 4.652.013 | 28.256.555 | 32.908.568 |
| Guztira | 15.138.106 | 28.256.555 | 43.394.661 |

94-12-31an Udalak diruzaintzaren kudeaketarako hamahiru kontu ditu bost banketxetan. Dena den, maileguak ordaintzeko irekitako mailegu kontuei ematen zaie lehentasuna maileguak eta, beraz, interesak gutxitzeko. Udalaren egoera ekonomikoa kontuan hartuz, egoera hau ez da egokiena kontrola eta erabilgarritasun aldizkako kontrolak zaildu eta estaldura gutxieneko salduak izatera behartzen duelako.

Udalak alkateak eta idazkari-kontu hartzaileak onartutako ordainketa agindu bidez egiten ditu ordainketak, taloiaz (hiruen sinadurarekin) eta transferentziaz (gordailuzainaren sinadura).

Diruzaintzaren kontrola lau liburu laguntzaileren bidez eta kutxako kontaketa liburuaz egiten da. Hau dena oso korapilotsua da liburu bakoitzak xede zehatza duelako (kobrantza eta ordainketa orokorrak, kontzeptu-aurrekontu kobrantzak eta ABI, kutxa eta bankuen artean banaturiko ordainketa eta kobrantzen hilabeteko laburpena eta kutxa-saldoen laburpen liburua). Azken hau da eginbidetuta dagoen bakarra.

Kutxari dagokionez, kutxa txikiaren prozedura erabiltzen bada ere, ez dago isolaturik kobrantza eta ordainketarako beste bat dagoelako, aurrekoarekin gurutzatu egiten dena.

Aurreko lerroaldeen arabera, hona gure gomendioak:

*Kontu korrente eta banketxe kopurua ahalik eta gehien murriztea saldo sinbolikoak dituzten kontu korrenteak bertan behera utziz.*

*Ordainagirien sinadurak (taloi eta transferentziak) amankomunatua izan behar du.*

*Kontuen erregistro eta kontrola erraztu eta kudeaketarako informazio beharrezkoa biltzen duen diruzaintzako aplikazioa martxan jartzeko aukera aztertzea.*

l) Hirigintza eta ondarea

Leitzako Udalak, 1984ko urritik, baditu udal arau subsidiririoak, dagokien azterketa ekonomiko-finantzieroa eta guzti. Azken onarpena 1993ko uztailekoa da.

Udalak ez du udalaren lurzori-ondarerik eratu.

*Gogorazi egiten zaio dagokion Udalaren Luzoru Ondarea eratu beharra. Ondarearen barnean behar dute hirigintza-planteamenduak hirilurtzat edo urbanizagarri programatuzat sailkatzen dituen ondare-ondasunak eta, beti ere, lagapenen bitartez eskuratuak, lorzoru zein dirutan izan, hirigintza-desjabetzapenen bitartez eta tanteo eta atzera-eskuratzeko eskubidea erabiltzearen ondorioz (T.B.aren 276 eta 286 artikuluen bitartekoak eta Hirigintza eta Antolaketa 10/94 Foru Legearen 265.1 artikulua).*

Udalaren ondarearen inbentarioa 1991ko abenduaren 31an egin zen eta osoko bilkurak 1992ko apirilaren 24an onartu zuen, eguneratze lana oraindik osoko bilkurak onartu gabe dagoela. Urteko mugimenduak identifikaturik eta onarturik daude, baina oraindik ez dira inbentarioan sartu.

Inbentarioan ez dira lur ondasun eta eskubideak sartu. Ondasun hauek guztiak ez daude jabego-erregistroan erregistraturik, batez ere ere transazio-hitzarmen bidez finkatzen ari diren komunalak.

*Udalaren Ondarearen Inbentarioa osatzea gomendatzen dugu, eta hura kontrolatzeko azpisistema ezartzea ere.*

*Udal ondare guztiak Jabego Erregistroan sartzea gomendatzen dugu.*

m) Administrazio eta kontu prozedurak

Aurrekontuaren betetze-oinarriak badira eta langile bakoitzari zergin zehatzak ematen zaizkio. Eginiko frogetan ez dugu kontrol arlo arriskutsurik antzeman, baina gordailutzan konzentrazio maila handia dago.

Kontabilitatetea, diru-bilketa eta errolda fiskala mekanizaturik daude. Ondasun-inbentarioaren kudeaketa, berriz, informatizatuta egon arren, ez dago eguneratuta eta ez da horri buruzko kudeaketa txostenik egiten.

Iruñean 1996ko apirilaren 15a
Lehendakaria

Francisco Javier Tuñón San Martín

# Eraskinak

## I. eraskina. 94-12-31ko organigrama






**LABURPENA 94/12/31n:**

F = Funtzionarioak (4)
LF = Laboral Finkoa (2)
LKI = Lan kontratupeko iraungabea (2)
AL = Aldi baterako lan kontratupekoa (20)
LMAL = Lanaldi Murritzeko Aldi baterako kontratupekoa (11)
LMLF = Lanaldi Murritzeko Laboral Finkoa (2)
GUZTIRA = 41

## 2. eraskina. Zorraren kuadroa 93-12-31, 94-12-31 eta 95-12-31n

| Entitatea | Zertarako | Zenbat | Data | Korrituak | Muga Urtea | Zor bizia 93/12/31 | Zor bizia 94/12/31 | Zor bizia 95/12/3 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Nafarr. Gobern. | Katastroa | 1.324.920 | 1/90 | --- | 1993 | 441.640 | --- | -- |
| Nafarr. Gobern. | Ohiandar katastroa | 1.658.286 | 12/93 | --- | 1996 | 1.658.286 | 1.658.286 | 1.105.52 |
| Nafarr. Gobern. | Larreak | 16.307.806 | 6/90-12/92 | --- | 2012 | 15.492.410 | 14.677.014 | 13.861.63 |
| N.A.K | Ur horn. eta san. | 9.000.000 | 12/86 | 13,75% | 1994 | 1.125.000 | --- | -- |
| N.A.K | Zinearetoaren erosket. | 10.200.000 | 7/88 | 13% | 1996 | 3.825.000 | --- | -- |
| N.A.K | 1994ko obrak | 45.000.000 | 11/94 | MIB.+0,5% | 2004 | --- | 45.000.000 | 45.000.00 |
| C.L.P. | Ur horn. eta san. | 6.000.000 | 4/87 | 13,5% | 1995 | 1.500.000 | --- | -- |
| C.L.P. | Kontuen birfinanz. | 10.000.000 | 6/87 | 13% | 1995 | 2.500.000 | --- | -- |
| C.L.P. | Diruzaintz. mailegua | 15.000.000 | 1/94 | MIB.+0,4% | 1995 | --- | 15.000.000 | -- |
| C.L.P. | Diruzaintz. mailegua | 30.000.000 | 3/94 | MIB.+0,5% | 1995 | --- | 30.000.000 | -- |
| C.L.P. | 94ko obras eta birfin. | 105.000.000 | 1/95 | MIB +0,75% | 2005 | --- | --- | 105.000.00 |
| B.C.L. | 89-91 hirurteko plana | 151.010.508 | 6/90 | 10% | 2001 | 125.910.145 | --- | -- |
| B.C.L. | M. Lasarte harresia | 11.489.492 | 6/90 | 14% | 2001 | 9.895.315 | --- | -- |
| B.C.L. (1) | Birfinan. mailegua | 132.745.838 | 10/94 | MIB+0,7% | 2001 | --- | 128.004.915 | 113.944.64 |
| B.C.L. (1) | Birfinan. mailegua | 4.550.000 | 10/94 | MIB.+0,7% | 2001 | --- | 4.387.500 | 3.737.50 |
| B.C.L. (1) | 1994ko obrak | 39.227.054 | 7/94 | MIB.+0,5% | 2004 | --- | 39.227.054 | 39.227.05 |
| Guztira epe luzeko maileguak | | | | | | 162.347.796 | 277.954.769 | 321.876.35 |

(1) Mailegu hauek 96-1-16an birfinantziatu dira zenbatekoa 156.909.200 pezetakoa delarik, MIBOR+%0,63, 15 urteko epean, bi urteko gabeziaz.

# 3.1. Leitzako Alkate ohiak txostenari aurkeztutako alegazioak

CAMARA DE COMPTOS DE NAVARRA
NAFARROAKO KONTUEN GANBARA
1 0 ABR. 1996
ENTRADA / SARRERA Nº 202

**A LA CAMARA DE COMPTOS DE NAVARRA**

JUAN ORONOZ ZABALETA, en calidad de Ex-Alcalde del Ayuntamiento de Leitza, ante la propuesta de Informe de Fiscalización provisional sobre el Ayuntamiento de Leitza (Ejercicio 1994), dentro del plazo concedido al efecto formulo las siguientes ALEGACIONES:

El suscribiente discrepa de muchas de las consideraciones que se incluyen en el Informe Provisional del que se nos ha dado traslado, pero tratándose de diversas cuestiones que afectan al funcionamiento en general del propio Ayuntamiento, centraremos nuestras alegaciones en lo que hace referencia al Capítulo V. Conclusiones y recomendaciones, en su punto 3. Contratación.

En los antecedentes de este título se hace referencia al informe del que fue Secretario del Ayuntamiento de Leitza, realizado con fecha 17 de Noviembre de 1994, poco tiempo antes de dejar este Ayuntamiento en el que había prestado sus servicios desde el año 1989.

Como se puede apreciar, las desviaciones del importe total adjudicado durante los años analizados, 8,5% es mínimo y muy inferior a cualquier obra ejecutada por las Administraciones en aquéllas fechas para un volumen de obras que superó los 1.000 millones de pesetas.

Dicho porcentaje queda reducido al mínimo si se tiene en cuenta que los 44.146.901.- Pts. de la desviación producida en el expediente "pavimentación de caminos rurales" corresponde a una ampliación de obra

que fue solicitada y aprobada por el Gobierno de Navarra, debiendo constar dicha aprobación en los archivos de Administración Local, documentación de la que no puede responsabilizarse el Ayuntamiento y en todo caso sería obligación del Secretario del Ayuntamiento.

Las presuntas infracciones a la normativa de contratación recogidas en el apartado 3.2 serían únicamente imputables a quien tenía la obligación profesional y legal de tramitar todo el expediente administrativo que, como es obvio, no es obligación de los concejales del Ayuntamiento, sino del Secretario.

No obstante, debemos manifestar que no es cierto que se adjudicaran las obras sin proyectos técnicos ni pliegos de condiciones o cláusulas administrativas particulares. Pues en la práctica totalidad de las adjudicaciones se disponía del correspondiente proyecto y se firmaban los pliegos de condiciones económico-administrativas, exceptuándose en algunas pequeñas ampliaciones de obras.

Esta documentación tiene que obrar en los archivos del Ayuntamiento, cuya custodia corresponde al Secretario.

Las primeras adjudicaciones del Plan Trienal realizadas en 1989 se hicieron con la asistencia del Secretario de Ezkurra y Erasun, ya que en aquellas fechas todavía estaba sin designar el Secretario.

Todas las adjudicaciones fueron aprobadas por unanimidad por el Pleno de la Corporación excepto una que contó con la abstención de un concejal, habiendo expresado previamente su acuerdo en el fondo.

No es cierto que la redacción de los proyectos se adjudicara a un mismo facultativo. Durante el periodo revisado se contrataron los servicios entre otros de los Arquitectos Julián Sevillano y Pedro Pastor, el Arquitecto Técnico Carlos Sagastibelza, el Aparejador Laureano Sánchez, el Ingeniero Antonio Suescun, el Ingeniero Técnico Javier Etxeberría, etc.

En cuanto a la concurrencia de otros constructores, además de los adjudicatarios, en varias obras se invitó a más de siete contratistas. Concretamente, para la obra de pavimentación de caminos locales se invitó a todos los contratistas de la localidad. Entre las empresas adjudicatarias figuran Azpiroz y Saralegui (adjudicataria de numerosas obras de saneamiento en múltiples Ayuntamientos de Navarra), Sagastibeltza y Artola, Gregorio Sagastibeltza y el alumbrado público a Electricidad Ostiz.

En todas las adjudicaciones se siguieron los trámites legales y sólo en algunas de ellas el Secretario hizo constar advertencia de ilegalidad por falta de consignación de partida presupuestaria, pero en ningún caso por otras cuestiones o supuestas irregularidades que denuncia cuanto terminaban sus relaciones con el Ayuntamiento y no en los momentos en que, en su caso, hubiese tenido obligación de hacerlo.

La advertencia relacionada con la falta de consignación de partida presupuestaria el mismo Secretario informaba en ocasiones que podía subsanarse aprobando inmediatamente la correspondiente partida, lo que así se hizo facilitándose que las liquidaciones de las obras se realizaran en su momento.

En lo que hace referencia al punto 3.3 de ese mismo título se debe dejar constancia de que es absolutamente incierta la afirmación del

Secretario de que el Ayuntamiento de Leitza hubiera obtenido mayores subvenciones que las que le correspondían, pues el importe de dichas subvenciones se ha destinado íntegramente a tales obras y el coste de las mismas es real, como se puede constatar mediante la valoración y medición de la misma. En consecuencia el presupuesto y coste de las obras son ciertos y adecuados al volumen real de las obras ejecutadas y subvencionadas por el Gobierno de Navarra.

De otro lado, si se han realizado algunas obras distintas a las adjudicadas mediante los proyectos correspondientes ha sido por la negociación con los adjudicatarios, a quienes se les daban numerosos servicios y prestaciones a cambio de la realización por su parte de algunas obras de entidad menor que en la mayoría de los casos eran complementarias de las adjudicadas. De esta forma los adjudicatarios utilizaban una cantera municipal para extraer material todo-uno para afirmado de pistas y rellenado de zanjas, una cantera de losa roja, autorización para la instalación provisional de plantas de hormigón, así como la utilización de un solar municipal para almacenamiento de material y maquinaria de construcción.

La mayoría de los presupuestos a los que hacen referencia las obras ejecutadas fueron elaborados en el año 1986 junto a los correspondientes proyectos, por encargo del anterior Alcalde y fueron ejecutados según presupuestos muy anteriores a la fecha de su adjudicación sin ni siquiera actualizaciones conforme al I.P.C.

Por tanto, resulta absolutamente incierto que se "inflaran los presupuestos". La realidad pone en evidencia todo lo contrario.

Las obras realizadas como consecuencia de las gestiones del Ayuntamiento con los adjudicatarios, contrariamente a lo que se manifiesta, han supuesto un ahorro para la Hacienda Foral ya que se han hecho al margen de la adjudicación y sin subvención alguna.

En todo caso, la actuación de los corporativos del Ayuntamiento de Leitza ha sido guiada por el interés exclusivo de mejorar las infraestructuras de su localidad, no teniendo responsabilidad alguna en la pura tramitación administrativa de los expedientes y dirigiendo su gestión a conseguir que con los recursos disponibles, y a los que eran acreedores legalmente, se pudieran realizar algunas obras complementarias absolutamente necesarias y que su retraso únicamente hubiera supuesto incremento de costes y mayores dificultades para su ejecución.

Pamplona, 9 de Abril de 1996

# 3.2. Toki Administrazio Departamentuak aurkeztutako Alegazioak

Manuel Lezana Odriozola
Edif. "Fuerte del Príncipe II"
C/ Blas de la Serna, 1 - 3ª planta
31005 PAMPLONA
Tfnos. 10 76 84
Fax 10 35 84

Gobierno de Navarra
Departamento de
Administración Local
El Director General
de Administración Local

En relación con el informe provisional de fiscalización sobre el Ayuntamiento de Leitza realizado por la Cámara de Comptos de Navarra y, analizados los apartados V.3.4 y V.3.5 donde se hace referencia a este Departamento de Administración Local procede formular las siguientes alegaciones:

1) Sobre el apartado V.3, relativo a la contratación, considerado globalmente, este Departamento se pronuncia muy favorablemente sobre el alcance de la investigación realizada en el municipio de Leitza así como sobre las conclusiones obtenidas.

2) Parece procedente, sin embargo, hacer algunas puntualizaciones a los apartados V.3.4 y V.3.5 del informe de esa Cámara de Comptos en cuanto a las recomendaciones formuladas hacia este Departamento de Administración Local.

Aún cuando resulta evidente que tales recomendaciones están plenamente justificadas a la vista de los hechos que han sido objeto de investigación en el Ayuntamiento de Leitza, parece procedente, no obstante, que se señale como a partir del Decreto Foral 21/1996, de 15 de enero, por el que se establece el Plan de Obras de Infraestructuras Locales para el ejercicio de 1996, se han introducido determinadas medidas dirigidas precisamente a asegurar el control de las obras financiadas con cargo al Fondo de Haciendas Locales.

Así en el artículo 22 del Reglamento ya se empieza a visualizar que dicho control se ejercerá principalmente sobre los procedimientos administrativos en materia de contratación y para ello se exige a las Entidades Locales, cuyas obras hayan sido incluidas provisionalmente en el Plan del año 1996, la presentación de un certificado del

acuerdo del Órgano competente sobre la modalidad que se utilizará para la adjudicación de las obras, así como el pliego de cláusulas administrativas que regirá.

En idéntico sentido el artículo 24 exige presentación del acta de la mesa de contratación, Boletín Oficial de Navarra en que se debió publicar el anuncio de licitación y certificación sobre el procedimiento de adjudicación seguido.

Con tales medidas este Departamento de Administración Local pretende exigir que todas las entidades locales acogidas en los sucesivos Planes de Obras cumplan el requisito esencial de licitación pública en materia de contratación, pues tal extremo es decisivo para evitar una indebida utilización de los Fondos Públicos.

Dichas medidas seguirán exigiéndose en lo sucesivo, más concretamente en el próximo proyecto de reglamento del Plan Trienal 1997-1999, cuya redacción debe formularse en el presente ejercicio.

Pamplona, 9 de abril de 1996

EL DIRECTOR GENERAL
DE ADMINISTRACIÓN LOCAL

Manuel Lezana Odriozola

Ilmo. Sr. D. Francisco Javier Tuñón. PRESIDENTE DE LA CAMARA DE COMPTOS

# 3.3. Leitzako Alkateak txostenari aurkeztutako alegazioak

Leitzako Udala
(Nafarroa)

CÁMARA DE COMPTOS DE NAVARRA
NAFARROAKO KONTUEN GANBARA
10 ABR. 1996
ENTRADA / SARRERA Nº 205

**Kontu Ganbara horrek Leitzako Udalari buruzko behin-behineko fiskalizazio txostenari, honako alegazio hauek aurkezten dizkiogu:**

**1.- Hartutako akordioaren aktak, kontratoak eta erabaki guztiak bere osotasunean bidaltzea.**

**2.- Udalaren borondatea zera da: dena, azken puntaraino ikertua izan dedila.**

**3.- Herriarentzat eta herritarrentzat kalterik ez dedin sor, kontuan izanik gainera gertakizun hauetan Nafarroako Gobernuko ordezkaritza zeramaten teknikariak tarteko zirela.**

**Leitza, 1996.eko apirilak 9.**

Presentamos las siguientes alegaciones al informe provisional de fiscalización que esa Cámara de Comptos ha realizado a este Ayuntamiento:

1.- Remitir en su totalidad las actas de los acuerdos, los contratos y todas las decisiones.

2.- La voluntad del Ayuntamiento es que se investigue todo, hasta sus últimas consecuencias.

3.- Teniendo en cuenta que están involucrados en estos hechos los técnicos que representaban al Gobierno de Navarra, solicitamos que no se deriven consecuencias negativas ni para los vecinos ni para el pueblo.

Leitza, 9 de abril de 1.996.

**Alkateak,**

**Stua.: Miguel Angel Illarregui Elberdin.**

NAFARROAKO KONTUEN GANBARA
CAMARA DE COMPTOS DE NAVARRA

## 4. Leitzako alkate ohiak eta Toki Administrazio Departamentuak aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganbarak emaniko erantzuna

Aurkeztutako alegazioei dagokienez, Nafarroako Kontuen Ganbarak honako hau esan nahi du:

Juan Oronoz Zabaleta jaunak, aztertutako epean Leitzako alkate zenak, alegazioak aurkeztu ditu; halaber Gabriel Saralegi Arribillaga jaunak, Miguel Maria Zabaleta Labayen jaunak, Luciano Olano Villanoba jaunak eta Mercedes Laizar Etxeberria andreak, Leitzako zinegotziak, beste dokumentu batean alegazio berberak aurkeztu dituzte. Aipatu behar da txostenak aztertutako epean Luciano Olano Villanoba izan ezik, gainerakoak ez zirela Leitzako zinegotziak. Alegazioen edukina berbera izanik, Oronoz jaunarenak besterik ez ditugu argitaratu.

Toki Administrazio Departamentuak aurkezturiko alegazioak ere argitaratu ditugu.

Azkenik, Leitzako alkateak aurkeztutakoak argitaratu ditugu bertan txostenaren edukinari buruzko erreferentzirik ez badago ere.

Behin Behineko txostenari aurkeztutako alegazioak aurkeztuta, Lehendakaritza honek behin betiko txostena onartzea erabaki du, honako xehetasun hauek azpimarratuz.

Alkate ohiak eta besteek aipatutakoari dagokionez, honako hau esan nahi dugu:

Kontratazio espedienteen dokumentazioari dagokionez, berriz esan nahi dugu, txostenak dioen bezala, tramitazioan beharrezkoak diren dokumentu garrantzitsuak falta direla.

Txostenak aipatzen dituen obren adjudikatarioei dagokienez, kontrataturiko obraren zenbatekoaren %85 baino gehiago tekniko berari eta kontratista berari ematen zaio.

Udalak kontratista eta adjudikatarioei emaniko zerbitzu eta laguntzei dagokienez, horri buruz aurkitu dugun informazio bakarra txostenaren V.3.3. atalean bildutakoa da.

Azkenik, aipatutako atalean esandakoa kontuan hartuz, ez dugu uste obra batzuk adjudikatu gabe egiteak, derrigorrez, Diputazioarentzako aurrezkirik ekarri duenik.

Iruñean, 1996ko apirilaren 15a

Lehendakaria




Francisco Javier Tuñón San Martín